

HIZKERA JURIDIKOA ETA ITZULPENGINTZA: EUSKARAREN NORABIDEAK

Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, 2004ko azaroaren 17an eta 18an, *Hizkera Juridikoa eta Itzulpengintza* sinposioa antolatu zuten Deustuko Unibertsitatean, Euskal Gaien Institutuaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan. Liburu honetan, sinposio horretako aktak jaso dira.

Sinposioko parte-hartzaileen hitzaldiak transkribatu dira, haien parte-hartzeen hurrenkeraren arabera. Hitzaldietan erabilitako hizkuntza errespetatu da. Hartara, horietako zazpi (Cesar Gallastegi, Gotzon Lobera, Adolfo Arejita, Andres Urrutia, Eneko Oregi, Esther Urrutia eta Itziar Alkorta hizlarienak) euskaraz daude; bi (Enrique Alcaraz eta José Palacio hizlarienak) gaztelaniaz eta bat (Santiago Larrazabalena) bi hizkuntzetan jaso da, elebiduna izan zen eta.

Era berean, sinposioaren amaierako mahai-inguruan parte hartu zutenen euskarazko testuak bildu dira (Jon Landa, Esteban Umerez, Josu Barambones, Karlos del Olmo, Leire Zenarruzabeitia eta Manu Arrasate).

Horrekin batera, *Kode Zibila eta Lege-testu elebidunak* bildumaren aurkezpen ofizialari buruzko kronika egin da. Sinposioko ekitaldi horretan, Deustuko Unibertsitateko errektore jaun txit gorena eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria izan ziren mahaiburua. Gainera, ekitaldiaren oroigarritzko argazki batzuk, sinposioaren programa eta parte-hartzaileen zerrenda gehitu dira.

Santiago Larrazabal Basañez / Eneko Oregi Goñi (Koord.)

Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak

*Deustuko Unibertsitatean 2004ko azaroaren
17 eta 18an egindako sinposioaren agiriak*

CAPITULO V.

De los derechos de los Interpretes.

§. *único.* **A**l Interprete de Bascuence en el caso de que el Juez contemple necesario valerse de él, se señalan dos reales vellon por cada testigo; y á los Interpretes de otras Naciones, se pagarán quince reales de vellon, por cada día entero que ocuparen trabajando las horas señaladas á los Escribanos, y con este respecto se graduará la ocupacion, certificando al pie de las diligencias y traduccion, el tiempo que emplearen conforme á lo prevenido en esta parte á cerca de los ministros Alguaciles.

Amaitzeko, sinposioaren eta argitalpen honen koordinatzaileok eskerrak eman nahi dizkiegu hizlariei, sinposioko aktak arazoizko epe baten barruan bildu, bateratu eta argitaratzeko lan zailan lankidetzan aritzeagatik, baita sinposioa antolatu eta argitalpen honetan elkarrekin lan egin duten erakundeei ere, hots, Deustuko Euskal Gaien Institutua eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea. Eskerrak, era berean, Rosa Buendía andreari, Euskal Gaien Institutuko idazkaritzakoa, Arantza Etxebarria andreari, Euskarazko Irakaskuntzarako Laguntza Gunekoa, eta Andres Urrutia eta Cesar Gallastegi irakasle jaunei, argitalpen honen inguruan egindako ohar eta iradokizunengatik.

Santiago Larrazabal eta Eneko Oregi